

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5496

AGINDUA, 2014ko abenduaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, euskal kirol-federazioen 2015eko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzeko dena.

Abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren xedea kirol-federazioen finantza-erregimena arautzea da, horiei beren urteroko kirol-programetarako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emanez (2000ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.).

287/2000 Dekretu horretako 3. artikulua xedatzen duenez, urtez urte egingo da Dekretuak arautzen dituen laguntzak jasotzeko deialdia, Kulturako sailburuaren, gaur egun Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua denaren aginduaren bidez, eta deialdi horietan gorabehera hauek zehaztuko dira: deitutako laguntzak finantzatzeko diru-hornidura, eskabideak aurkezteko epeak eta tokia, erakunde eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa, laguntzen zenbatekoa egiteko ponderazio-irizpideak, eta emandako laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu behar diren dokumentuak.

Beraz, 287/2000 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, agindu honen bitartez gorabehera horiek zehaztuko dira, 2015. urteari begira laguntza-deialdia aplikatu ahal izateko.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren bidez araututako diru-laguntzetarako 2015eko deialdian parte hartu nahi duenak hilabeteko epea izango du eskabidea aurkezteko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. artikulua.– Eskabideak aurkezteko lekua.

Eskabideak modu presentzian aurkeztu ahal izango dira Zuzenean zerbitzuan, EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoetan) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotako organoetan.

3. artikulua.– Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Diru-laguntzak jasotzeko eskabideekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Eskabide-inprimakia (I. eranskina). Federazioaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta ordezkari horrek duen lege-ahalmenaren egiaztatzea ere aurkeztu behar dira.

b) Erakundearen 2015eko ekitaldiko urteko aurrekontua, batzar nagusiak onartua, VI. eranskineko kontabilitate-ereduaren arabera.

- c) Federazioaren Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren fotokopia.
- d) Zerga eta Gizarte Segurantzako kontuetan bere betebeharrak guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duten agiri eguneratuak.
- e) Entitate onuradunak eskatu dituen edo ustez jasoko dituen beste laguntza batzuen ziurtagiria, tokian tokiko federazioaren idazkariak emana, laguntzok emango dituen erakunde publiko zein pribatuaren izena eta diru-laguntzarako eskabideen egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain, emanak) eta diru-kopuruak. Horrelakorik egon ezean, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programetarako beste inongo laguntzarik ez dela eskatu edo jaso egiaztatzeko jakinarazpena.
- f) Kirol-programa azaltzen duen memoria (II. eranskina). Honako hauek agertuko dira bertan:
- Federazioak antolatutako kirol-lehiaketa ofizialak. Lehiaketen gutxi gorabeherako kopurua, espezialitate edo diziplinen eta kategorien arabera. Parte hartuko duten kirolari eta klubaren kopurua eta parte hartuko duten klubaren portzentajea adierazi beharko da, federazioan afiliatuta dauden klub guztien aldean.
 - Kirol-prestakuntzako jarduerak. Egingo diren jardueren zerrenda eta partaideen eta orduen kopurua gutxi gorabehera.
 - Zuzendari teknikorik dagoen. Horren titulazioa, dedikazioa ordutan eta federazioarekin duen lotura.
 - Parte-hartzera bideratutako kirolen inguruan federazioak antolatutako jarduerak (jolas, aisia eta osasunerako kirola).
 - Kirol-selekzioen jarduerak.
 - Kirol-modalitatea bertokoa den.
 - Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak baztertzeko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko federazioak bultzatzen dituen ekintzak.
- g) Federazioen estamentu-liburua, Kirol Erakundearen Erregistroak legeztatua, eta Federazioaren idazkariak presidenteari oniritziarekin egindako egiaztapena, 2014ko abenduaren 31n federazioak zituen kirolari federatuen kopurua adierazten duena (III. eranskina).
- h) 2014ko abenduaren 31n federazioak afiliatuen artean zituen goi-mailako kirolarien zerrenda (Kirol Kontseilu Gorenak eta/edo Eusko Jaurlaritzak onartuak).
- i) Federazioak euskara zenbateraino erabiltzen duen adierazten duen memoria (IV. eranskina). Honako hauek aipatuko dira:
- Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.
 - Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.
 - Euskarazko web orririk duen.
 - Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.
 - Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.
 - Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.
 - Federazioko hizkuntza-paisaia euskara erabiltzen den.

j) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena entitate eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik jaso, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrita (V. eranskina).

k) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena entitatea ez dagoela sartuta diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

l) Txapelketa ofizial propioen egutegia, Federazioko idazkariak sinatua eta presidentek ontzat emana, Batzar Nagusiak zein egunetan onartu duen adierazita.

4. artikulua.– Diru-hornidura.

2015eko ekitaldirako agindu honetan arautzen diren laguntzak finantzatzeko bideratu den aurrekontu-hornidura bi milioi hirurehun eta berrogeita hamar mila (2.350.000) eurokoa da.

5. artikulua.– Laguntzak kuantifikatzeko irizpideak.

Segidan zehazten diren zenbatekoen batuketak esango du honako agindu honen deialdian parte hartuko duten federazioei zenbateko diru-laguntza emango zaien:

1.– Euskal kirol-federazioen 2014ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko apirilaren 16ko Aginduaren babesean federazio bakoitzak eskuratu zuen diru-laguntzaren erdia (% 50).

2.– Aurreko puntuaren arabera federazio eskatzaile bakoitzarentzako diru-kopurua zehaztu ondoren, horien guztien batuketa agindu honetako 4. artikuluan zehaztutako kopuruari kenduko zaio eta gelditzen dena irizpide hauen arabera banatuko da:

a) Kirol-programa (puntuen % 75).

Ondoko hauek hartuko dira kontuan kirol-egitasmoaren interesa balioesteko:

– Federazioak antolatutako kirol-lehiaketa ofizialak.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak.

– Zuzendari teknikorik dagoen.

– Parte-hartzera bideratutako kirolen inguruan federazioak antolatutako jarduerak (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kirol-selekzioen jarduerak.

– Kirol-modalitatea bertokoa den.

b) Lizentzia federatua duten kirolarien kopurua (puntuen % 5).

c) Euskararen erabilera (puntuen % 10). Puntu bana emango zaie euskaraz osoki egindako ondorengo ekintzei, eta puntu erdia euskaraz zati batean egindako ekintza bakoitzari:

– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.

– Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.

- Euskarazko web orririk duen.
- Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.
- Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.
- Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.
- Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den.

d) Autofinantzaketa-maila (puntuen % 5), honako banaketa honen arabera:

- % 0,00 - % 49,99: 0 puntu
- % 50,00 - % 74,99: 2 puntu
- % 75etik gora: 5 puntu

e) Goi-mailako kirolarien kopurua, Kirol Kontseilu Gorenak eta/edo Eusko Jaurlaritzak onartuak (puntuen % 5), honako banaketa honen arabera:

Kirolari kp.	Puntuak
1-3	2
4-6	4
6tik gora	5

3.– Aurreko idatz-zatian zehaztutako balorazioa egin ondoren, federazio bakoitzari dagokion gainontzeko diru-kopurua honela kalkulatu da: federazio bakoitzak lortutako puntuazioak federazio guztien puntuazioarekiko erakusten duen portzentajea aplikatuko zaio artikulu honen 2. puntuan aipatzen den guztirako kopuruari.

6. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzeko prozedura.

1.– Agindu honetako 3. artikuluan eskatzen den dokumentazio guztia eta diru-laguntzaren eska-bidea aurkeztu ondoren, Gazteria eta Kiroletako zuzendariak ebazpena emango du onuradun bakoitzak jasoko duen lehenengo aurrerapena zenbatekoa izango den zehazteko eta ordainketa egiteko, euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuko 5. artikuluan adierazitako ordainketa-arautegian xedatzen dena betez.

2.– Bigarren ordainketa aurreratua Gazteria eta Kiroletako zuzendariaren ebazpenaren bidez egingo da, betiere aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren. Bigarren zati hori aipatutako urteko diru-laguntzaren % 25 izango da.

3.– Diru-laguntzaren gainerakoa, eskaera egin den urterako onetsitako diru-laguntzaren guztirakoa osatu artekoa, alegia, aurreratutako ordainketa emandako zenbatekoak justifikatu ondoren likidatuko da.

7. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Diru-laguntzaren bat jaso duten federazioek diru hori agindu honetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako helburuetarako erabili dela egiaztatu behar dute 2016ko otsailaren 15a baino lehenago, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

a) 2015. urteko aurrekontuaren likidazioa, Batzar Nagusiak onartua, VII. eranskineko ereduaren arabera.

b) Burututako kirol-proiektuari buruzko memoria zehatza. Horrekin batera, eskabidean zehaztutako jarduerak burutu direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

c) Helburu berbererako beste diru-laguntzaren bat jaso bada eta deialdi honetarako eskaera aurkezteko unean horren berri ez bazuen, horien zerrenda.

d) Gastuaren justifikazioa.

Gastua justifikatzeko, jatorrizko fakturak edo Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak zein Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lurralde-ordezkaritzek konpultsatutako fotokopiak aurkeztu behar dira. Fakturen zenbatekoa emandako diru-laguntzaren bestekoa izan behar da, ebazpean ezarritako baldintzen arabera.

e) Eskabidea egiterakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoa aurkeztu duten federazioei dagokienez, konpromiso hori betetzen dela erakusten duten agirien aleak.

2.– Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirolletako sailburuordeak dagoen likidazio-ebazpena emango du eta, hala badagokio, dagoeneko ordaindu den baina itzuli egin behar den zenbatekoa adieraziko du, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin bat etorrita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jakinarazten du emandako datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak Kultura Saileko «Kiroletarako Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean –2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututakoa– sartuko direla, zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duten bestelako administrazio-prozedurak edo -espedientek kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri; datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu, eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, DPBLk berriaz aitortzen dituen datuak esku-ratu, zuzendu, ezeztatu eta aurkatu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin harremanetan jarritik (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan jasotako ondorioetarako, agindu honetako diru-laguntzak eman ahal izateko, nahi-taezko baldintza da horretarako kreditu nahikoa eta egokia egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko Aurrekontu Orokorretan.

2014ko abenduaren 29a, astelehena

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, horren aurka aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 9a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

EUSKAL KIROL-FEDERAZIOEN KIROL-PROGRAMETARAKO DIRU-LAGUNTZAK, 2015.
URTEKOAK.

FEDERAZIOARI BURUZKO DATUAK

Izena edo sozietate-izena:

.....

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroko inskripzio-zenbakia:

Inskripzio-eguna: IFZ:

Helbidea:

Posta kodea: Herria:

Telefonoa: Faxa:

Helbide elektronikoa (e-maila).

FEDERAZIOAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

Izen-abizenak:

..... NAN zenbakia:

Helbidea:

Posta kodea: Herria:

Telefonoa: Faxa:

Helbide elektronikoa (e-maila).

.....(e)n, 2014koaren(e)(a)n.

Izen-abizenak: NAN zenbakia:

Izenpea

Eskabidea izenpetzen duenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta erakundearen legezko ordezkaria izan.

ENTITATE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a) Eskabide-inprimakia (I. eranskina).

a.1.– Federazioaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, ahalordetze agiriaren bidez edo, hala badagokio, dagokion organoak egindako egiaztatgiriaren bidez.

b) Erakundearen 2015eko ekitaldiko urteko aurrekontua, batzar nagusiak onartua, VI. eranskineko kontabilitate-ereduaren arabera.

c) Federazioaren IFZren fotokopia.

d) Zerga eta Gizarte Segurantzako kontuetan bere betebeharrak guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duten agiri eguneratuak.

e) Entitate onuradunak eskatu dituen edo ustez jasoko dituen beste laguntza batzuen ziurtagiria, federazioaren idazkariak emana, laguntzok emango dituen erakunde publiko zein pribatuaren izena eta diru-laguntzarako eskabideen egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain, emanak) eta diru-kopuruak. Horrelakorik egon ezean, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programetarako beste inongo laguntzarik ez dela eskatu edo jaso egiaztatzeko jakinarazpena.

f) Kirol-proiektuaren azalpen-memoria (II. eranskina).

g) Federazioen estamentu-liburua, Kirol Erakundearen Erregistroak legeztatua, eta Federazioaren idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako egiaztatgiria, 2014ko abenduaren 31n federazioak zituen kirolari federatuen kopurua adierazten duena (III. eranskina).

h) 2014ko abenduaren 31n federazioak afiliatuen artean zituen goi-mailako kirolarien zerrenda (Kirol Kontseilu Gorenak edo Eusko Jaurlaritzak onartuak).

i) Federazioan euskararen erabileraren erregimena azaltzen duen memoria (IV. eranskina).

j) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere (V. eranskina).

k) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena entitatea ez dagoela sartuta diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

l) Txapelketa ofizial propioen egutegia, Federazioko idazkariak sinatua eta presidenteak onartua emana, Batzar Nagusiak zein egunetan onartu duen adierazita.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jakinarazten dizu emandako zure datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak Kultura Saileko «Kiroletarako Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean –2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututakoa– sartuko ditugula, zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duten bestelako administrazio-prozedurak edo -espedientek kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri; datuen

segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu, eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOan, eta horretarako Eusko Jurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

2014ko abenduaren 29a, astelehena

PARTE HARTZERA BIDERATUTAKO KIROLLEN INGURUKO JARDUERAK
(JOLAS, AISIA ETA OSASUNERAKO KIROLA)

Idazkaria

O.E. / Presidentea

2014ko abenduaren 29a, astelehena

III. ERANSKINA

2014ko abenduaren 31n lizentzia federatua daukaten kirolarien kopurua

Jaiotze-urtea	Lizentzia federatua daukaten kirolarien kopurua	
	Emakumeak	Gizonak
1995 eta aurrekoak		
1996-1997		
1998-1999		
2000-2001		
2002 eta hurrengoak		
Guztira		

.....(e)n, 2014koaren(e)(a)n.

Idazkaria O.E. / Presidentea

OHARRA: Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren arabera, III. Eranskinean 2001etik aurrera jaiotako kirolarien lizentziak jaso ahal izango dira, baldin eta dagokion foru aldundiaren baimena aurkeztu bada Kirol Entitateen Erregistroan. 2000. urtean jaiotakoei dagokienez, eranskinean zenbatu ahal izango dira, baldin eta lizentzia 2014/2015eko eskola-kirolaren programa hasi ostean lortu badute (2014ko iraila), edota programa hori hasi aurretik lortu (hau da, 2014ko iraila baino lehen) eta lehen aipatutako baimena badaukate.

IV. ERANSKINA

EUSKARAREN ERABILERAREN ERREGIMENA AZALTZEKO MEMORIA (DIRU-LAGUNTZEN AGINDUAREN 3.I ARTIKULUA)

Euskal Federazioa:

1.– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.

A) Bat ere ez

B) Baten bat Zeintzuk:
.....C) Guztiak Zeintzuk:
.....2.– Euskararen erabilera federazioaren dokumentu eta argitalpenetan Bai Ez 3.– Euskarazko web orririk duen Bai Ez
Zati batean 4.– Jendeari harrera euskaraz egiten zaion Bai Ez 5.– Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den Erakundeekin Bai Ez Hedabideekin
Bai Ez

Bestelakoak: zeintzuk.

.....
.....
.....

6.– Federazioko kideekin euskara erabiltzen den

Lurralde-federazioekin

Bai Ez

Klubekin

Bai Ez

Batzarretan

Bai Ez

Bestelakoak: zeintzuk

.....
.....
.....

7.– Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den (errotuluak, postontziak, kartelak eta abar)

Bai Ez Zati batean

Idazkaria

O.E. / Presidentea

V. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IZEN-ABIZENAK

NAN:

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN, HAU ADIERAZTEN DUT

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.– Ordezkatzen dudan entitateak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik jaso, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrira.

Entitate eskatzailea ez dago sartuta diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

Sinadura

Eskabidea izenpetzen duenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta erakundearen legezko ordezkaria izan.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jakinarazten dizu emandako zure datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak Kultura Saileko «Kiroletarako Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean –2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututakoa– sartuko ditugula, zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duten bestelako administrazio-prozedurak edo -espedientek kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri; datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu, eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arategiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOn, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

VI. ERANSKINA

ENTITATEAREN URTEKO AURREKONTUA 2015EKO EKITALDIRAKO

GASTUEN AURREKONTUA		
1. PROGRAMA. LANGILE-GASTUAK		
Kodea		
1.1	Nominak	
1.2	Gizarte Segurantzako kuotak	
1.3	PFEZaren atxikipenak	
1.4	Bidaia-gastuak eta dietak (langileak eta zuzendaritzako langileak)	
1.5	Beste gastu batzuk	
GUZTIRA		
2. PROGRAMA. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK		
Kodea		
2.1	Telefonia eta Internet	
2.2	Webgunea mantentzea	
2.3	Hornidurak (ura, argia, gasa...)	
2.4	Bulegoko materiala	
2.5	Posta-gastuak, mezularitza, fotokopiak	
2.6	Konponketak eta kontserbazioa	
2.7	Garbiketa	
2.8	Itzulpen-zerbitzuak	
2.9	Kanpo-zerbitzuak (juridikoa, laborala)	
2.10	Errentamenduak	
2.11	Aseguruak (lokalak, txapelketen antolaketa eta erantzukizun zibila)	
2.12	Ibilgetu ez-materialaren amortizazioa	
2.13	Ibilgetu materialaren amortizazioa	
2.14	Beste gastu batzuk	
GUZTIRA		
3. PROGRAMA. FINANTZA-GASTUAK		
Kodea		
3.1	Banku-komisioak	
3.2	Kreditu-interesak	
GUZTIRA		

4. PROGRAMA. LIZENTZIAK		
Kodea		
4.1	Kirol-asegurua	
4.2	Lizentzien homologazioa	
4.3	Lizentzien kuoten zati bat ordaintzea lurralde-federazioei	
4.4	Beste gastu batzuk	
GUZTIRA		
5. PROGRAMA. SUSTAPEN-MATERIALAK, PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK		
Kodea		
5.1	Sustapena	
5.2	Merchandisinga	
5.3	Laguntza, bidaiak eta batzarren, zuzendaritza-batzordeen eta abarren antolaketa	
GUZTIRA		
6. PROGRAMA. KIROL-PROGRAMAKO JARDUERAK		
Kodea		
6.1	EUSKADIKO TXAPELKETA	
6.1.1	Emakumeak	
6.1.1.1	Garaikurrak eta dominak	
6.1.1.2	Gauzatze teknikoa	
6.1.1.3	Mediku-laguntza	
6.1.1.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza	
6.1.1.5	Desplazamenduak	
6.1.1.6	Mantenua	
6.1.1.7	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, inskripzioak...)	
GUZTIRA		
6.1.2	Gizonak	
6.1.2.1	Garaikurrak eta dominak	
6.1.2.2	Gauzatze teknikoa	
6.1.2.3	Mediku-laguntza	
6.1.2.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza	
6.1.2.5	Desplazamenduak	
6.1.2.6	Mantenua	
6.1.2.7	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, inskripzioak...)	
GUZTIRA		

2014ko abenduaren 29a, astelehena

6.2	ESPAINIAKO TXAPELKETA	
6.2.1	Emakumeak	
6.2.1.1	Desplazamenduak	
6.2.1.2	Ostatua eta mantenua	
6.2.1.3	Mediku-laguntza	
6.2.1.4	Laguntza teknikoa	
6.2.1.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, inskripzioak...)	
	GUZTIRA	
6.2.2	Gizonak	
6.2.2.1	Desplazamenduak	
6.2.2.2	Ostatua eta mantenua	
6.2.2.3	Mediku-laguntza	
6.2.2.4	Laguntza teknikoa	
6.2.2.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, inskripzioak...)	
	GUZTIRA	
6.3	EUSKAL SELEKZIOEN KONTZENTRAZIOAK	
6.3.1	Emakumeak	
6.3.1.1	Desplazamenduak	
6.3.1.2	Mantenua	
6.3.1.3	Mediku-laguntza	
6.3.1.4	Laguntza teknikoa	
6.3.1.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, inskripzioak...)	
	GUZTIRA	
6.3.2	Gizonak	
6.3.2.1	Desplazamenduak	
6.3.2.2	Mantenua	
6.3.2.3	Mediku-laguntza	
6.3.2.4	Laguntza teknikoa	
6.3.2.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, inskripzioak...)	
	GUZTIRA	
7. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA		
Kodea		
7.1	Epaille eta arbitroentzako prestakuntza-ikastaroak	
7.2	Entrenatzaileentzako prestakuntza-ikastaroak	
7.3	Monitoreentzako prestakuntza-ikastaroak	
7.4	Bestelakoak	
	GUZTIRA	

2014ko abenduaren 29a, astelehena

8. PROGRAMA. TRANSFERENTZIAK HIRUGARRENEI		
Kodea		
8.1	Kirolariei (sariak)	
8.2	Lurralde-federazioei	
8.3	Klubei	
8.4	Bestelakoak	
GUZTIRA		
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA (Programak: 1etik 8ra)		
DIRU-SARREREN AURREKONTUA		
1. PROGRAMA. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BABESLETZAK		
Kodea		
1.1	Kultura Sailaren urteko programa	
1.2	Beste diru-laguntza edo laguntza publiko batzuk	
1.3	Babesletzak	
GUZTIRA		
2. PROGRAMA. LIZENTZIAK		
Kodea		
2.1	Kirolarien lizentziak	
2.2	Klubuen lizentziak	
GUZTIRA		
3. PROGRAMA. TORNEOAK ETA TXAPELKETAK		
Kodea		
3.1	Inskripzioak	
3.2	Zehapenak	
3.3	Sarrerak	
3.4	Bestelakoak	
GUZTIRA		
4. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA		
Kodea		
4.1	Inskripzioak	
4.2	Bestelakoak	
GUZTIRA		

5. PROGRAMA. FINANTZA DIRU-SARRERAK		
Kodea		
5.1	Finantza diru-sarrerak	
GUZTIRA		
6. PROGRAMA. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK		
Kodea		
6.1	Merchandisinga	
6.2	Irudi-eskubideak	
6.3	Bestelakoak	
GUZTIRA		
DIRU-SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA (Programak: 1etik 6ra)		

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jakinarazten dizu emandako zure datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak Kultura Saileko «Kiroletarako Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean –2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututakoa– sartuko ditugula, zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duten bestelako administrazio-prozedurak edo -espedientek kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri; datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu, eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOn, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

2014ko abenduaren 29a, astelehena

VII. ERANSKINA

2015. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA				
1. PROGRAMA LANGILE-GASTUAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
1.1	Nominak			
1.2	Gizarte Segurantzako kuotak			
1.3	PFEZaren atxikipenak			
1.4	Bidaia-gastuak eta dietak (langileak eta zuzendaritzako langileak)			
1.5	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				
2. PROGRAMA FUNTZIONAMENDU-GASTUAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
2.1	Telefonia eta Internet			
2.2	Webgunea mantentzea			
2.3	Hornidurak (ura, argia, gasa...)			
2.4	Bulegoko materiala			
2.5	Posta-gastuak, mezularitza, fotokopiak			
2.6	Konponketak eta kontserbazioa			
2.7	Garbiketa			
2.8	Itzulpen-zerbitzuak			
2.9	Kanpo-zerbitzuak (juridikoa, laborala)			
2.10	Errentamenduak			
2.11	Aseguruak (lokalak, txapelketen antolaketa eta erantzukizun zibila)			
2.12	Ibilgetu ez-materialaren amortizazioa			
2.13	Ibilgetu materialaren amortizazioa			
2.14	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				

2014ko abenduaren 29a, astelehena

3. PROGRAMA. FINANTZA-GASTUAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
3.1	Banku-komisioak			
3.2	Kreditu-interesak			
GUZTIRA				
4. PROGRAMA. LIZENTZIAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
4.1	Kirol-asegurua			
4.2	Lizentzien homologazioa			
4.3	Lizentzien kuoten zati bat ordaintzea lurralde-federazioei			
4.4	Bestelakoak			
GUZTIRA				
5. PROGRAMA. SUSTAPEN-MATERIALAK, PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
5.1	Sustapena			
5.2	Merchandisinga			
5.3	Laguntza, bidaiak eta batzarren, zuzendaritza-batzordeen eta abarren antolaketa			
GUZTIRA				
6. PROGRAMA. KIROL-PROGRAMAKO JARDUERAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
6.1	EUSKADIKO TXAPELKETA			
6.1.1	Emakumeak			
6.1.1.1	Garaikurrak eta dominak			
6.1.1.2	Gauzatze teknikoak			
6.1.1.3	Mediku-laguntza			
6.1.1.4	Laguntza teknikoak eta zuzendaritza			
6.1.1.5	Desplazamenduak			
6.1.1.6	Mantenua			
6.1.1.7	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				

2014ko abenduaren 29a, astelehena

6.1.2	Gizonak			
6.1.2.1	Garaikurrak eta dominak			
6.1.2.2	Gauzatze teknikoa			
6.1.2.3	Mediku-laguntza			
6.1.2.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza			
6.1.2.5	Desplazamenduak			
6.1.2.6	Mantenua			
6.1.2.7	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.2	ESPAINIAKO TXAPELKETA			
6.2.1	Emakumeak			
6.2.1.1	Desplazamenduak			
6.2.1.2	Ostatua eta mantenua			
6.2.1.3	Mediku-laguntza			
6.2.1.4	Laguntza teknikoa			
6.2.1.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.2.2	Gizonak			
6.2.2.1	Desplazamenduak			
6.2.2.2	Ostatua eta mantenua			
6.2.2.3	Mediku-laguntza			
6.2.2.4	Laguntza teknikoa			
6.2.2.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.3	EUSKAL SELEKZIOEN KONTZENTRAZIOAK			
6.3.1	Emakumeak			
6.3.1.1	Desplazamenduak			
6.3.1.2	Mantenua			
6.3.1.3	Mediku-laguntza			
6.3.1.4	Laguntza teknikoa			
6.3.1.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.3.2	Gizonak			
6.3.2.1	Desplazamenduak			
6.3.2.2	Mantenua			
6.3.2.3	Mediku-laguntza			
6.3.2.4	Laguntza teknikoa			
6.3.2.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			

2014ko abenduaren 29a, astelehena

7. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
7.1	Epaile eta arbitroentzako prestakuntza- ikastaroak			
7.2	Entrenatzaileentzako prestakuntza- ikastaroak			
7.3	Monitoreentzako prestakuntza- ikastaroak			
7.4	Bestelakoak			
GUZTIRA				
8. PROGRAMA. TRANSFERENTZIAK HIRUGARRENEI				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
8.1	Kirolariei (sariak)			
8.2	Lurralde-federazioei			
8.3	Klubei			
8.4	Bestelakoak			
GUZTIRA				
GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA GUZTIRA (Programak: 1etik 8ra)				
DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA				
1. PROGRAMA. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BABESLETZAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
1.1	Kultura Sailaren urteko programa			
1.2	Beste diru-laguntza edo laguntza publiko batzuk			
1.3	Babesletzak			
GUZTIRA				
2. PROGRAMA. LIZENTZIAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
2.1	Kirolarien lizentziak			
2.2	Kluben lizentziak			
GUZTIRA				

2014ko abenduaren 29a, astelehena

3. PROGRAMA. TORNEOAK ETA TXAPELKETAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
3.1	Inskripzioak			
3.2	Zehapenak			
3.3	Sarrerak			
3.4	Bestelakoak			
GUZTIRA				
4. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
4.1	Inskripzioak			
4.2	Bestelakoak			
GUZTIRA				
5. PROGRAMA. FINANTZA DIRU-SARRERAK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
5.1	Finantza diru-sarrerak			
GUZTIRA				
6. PROGRAMA. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK				
Kodea		Aurrekontuan jasotakoa (bat dator VI. eranskinean jasotakoarekin)	Gauzatua	Justifikatua
6.1	Merchandisinga			
6.2	Irudi-eskubideak			
6.3	Bestelakoak			
GUZTIRA				
DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA GUZTIRA (Programak: 1etik 6ra)				

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jakinarazten dizu emandako zure datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak Kultura Saileko «Kiroletarako Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean –2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututakoa– sartuko ditugula, zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duten bestelako administrazio-prozedurak edo -espedientek kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri; datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu, eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOn, eta horretarako Eusko Jurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.